

EL DIARIO VASCO (2006-02-16)

BERROBI / Rai Bueno ipuin kontalaria Berrobiko liburutegian izango da gaur arratsaldean

Bi saio eskainiko ditu ipuin kontalariak, bata 17:15etan eta ondoren bigarrena

ELISA BELAUNTZARAN /BERROBI. DV. Berrobiko umeek primeran pasatzeko aukera izango dute gaur arratsaldean. Izan ere, Rai Bueno ipuin kontalaria izango da liburutegian. Lehen saioa arratsaldeko 17:15etan izango da 6 urte bitarteko haurrentzat. Bigarrena, hau bukatu ostean izango da eta bertan Rai Bueno ipuin kontalariak 7 urte gorako gazte-txoentzat kontatuko ditu bere ipuinak. Herriko haur eta gaztetxo guztiak gonbidatuak zaudete bertan parte hartzeko.